

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4562

AGINDUA, 2014ko urriaren 22koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2014ko ekitaldirako laguntzetarako deialdia egiten duena.

2003ko ekitaldian, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2003ko urriaren 7ko Agindu eman zen, zeinarekin deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako 2013ko ekitaldirako laguntzetarako (2003ko urriaren 24ko EHAA, 208. zk.). Hurrengo ekitaldietan, aipatu laguntzetarako deialdiak egiten jarraitu zen, eta agindu honen bidez, ildo beretik, 2014koa egin nahi da.

Bestalde, 2014ko ekitaldiko laguntzetarako deialdia honako arau hauen babesarekin egiten da: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legea.

Deialdi hori prestatzeko kontuan izan da, diru-laguntzak emateari dagokionez, arau bi haue-tan ezarritakoa: 1/1997 Legegintzako Dekretua; abenduaren 17ko 689/1991 Dekretua, zeinarekin, batetik, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei buruzko erregimen orokorra arautzen baita, eta, bestetik, eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen baitira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, desegin eta aldatu eta horien egi-tekoak eta jardun-arloak finkatu zituen lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriaz, egoki da 2014ko ekitaldiko laguntzetarako deialdi egitea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da, 2014ko ekitaldiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan izaera sindikala duten Nekazaritzako Erakunde Profesionalentzako laguntzetarako deialdia egitea, hain justu ere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearekiko interlokuzio sozialeko funtzioak gauzatzeko, betiere euskal nekazaritza sektorearen gaien arloan, eta, oro har, nekazaritza sektorearentzako aholkularitzako jarduera sindikalei eusteko, eta, halaber, sindikatuetakoko bazki-deei dagokienez.

2.– Agindu honen ondorioei dagokionez, ondokoak dira sindikatu izaerako nekazaritzako erakunde profesionalak: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza sektorearen interes orokorrak ordezkatzea eta defendatzea xedetzat duten eta nekazaritzako profesionalez osaturik dauden elkarteak, inolako bereizketarik egin gabe profesionalek diharduteneko ekoizpen-azpisektorearen arabera.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

2014ko ekitaldian, agindu honen bidez deitutako laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hamabost egunekoa da, agindua Euskal Herriko Agintaritzan argitaratu eta biharamunetik zenbaitzen hasita.

Hirugarrena.– Eskabideak.

1.– Eskabideak Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari zuzendu behar zaizkio, eta Saileko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Donostia kalea 1, Lakua I, 3. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz), zuzenean edo bertara joanez, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 38.4 artikulua aurreikusitako edozein eratan.

2.– Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatu behar du eskabidea, eta honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

a) Eraketa-akta eta dagokion administrazio-organoak ikus-onetsitako estatutuak. Betebehar horretatik salbuetsita daude 2013ko urriaren 23ko Aginduaren kargura laguntza eskatu eta lortu duten nekazaritzako erakunde profesionalak, salbu eta estatutuetan aldaketak egin; kasu horretan, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari eman beharko zaio aldaketa horien berri.

b) Estatutuak gordailuturik dauden erregistroko arduradunak egindako ziurtagiria, inskripzioa indarrean dagoela egiaztatzen duena.

c) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egotea frogatzen duten agiri gaurkotuak.

d) Ekitaldian zehar egingo diren ekintzak justifikatzeko memoria, ondoko ekintzak adieraziz eta kuantifikatuaz:

– Jarduera sindikalen koordinazioa.

– Administrazioekin eta sektoreko elkarteekin kolaboratzea.

– Administrazioarekin erlazionatutako prozeduretan, aholku-ematea, laguntza, kudeaketa eta nekazariekin eta abeltzainekin kolaboratzea.

– Dinamizazio-, informazio- eta prestakuntza-aktibitateak antolatzea.

– Nekazaritzako politiken segimendua eta zabalkundea.

– Euren interesak defenditu eta sustatzeko, bazkideei emandako beste edozein zerbitzu.

e) Erakunde bakoitzaren afiliatu-kopurua, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezia daudenen kopurua ere zehaztuta; hori egiaztatzeko, haietako bakoitzeko idazkariak egindako ziurtagiria aurkeztuko da.

f) Agindu honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko aukeretan parte hartzeko erabakiaren, zehazki, erakundeak hartutakoaren ziurtagiria.

g) Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko deklarazioa, honako hauek jasotzen dituen:

– Beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk eskatu izana edo, kasua bada, jaso izana.

2014ko urriaren 28a, asteartea

- Itzulketa- edo zigor-prozeduraren baten ez izatea.
- Itzulketa-prozedura bukatutakoan ez izatea ordainketa-obligaziorik.
- Ez izatea zehapen administratiborik edo penalik, laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen duena.
- Laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko ezgaitzen duen legeko galarazpenen baten ez izatea.

3.– Eskabideak baldintza guztiak betetzen ez baditu, interesdunari jakinaraziko zaio hamar egun balioduneko epea duela akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko. Halaber, adieraziko zaio ezen, horrela egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik egindako ebazpena eman ondoren.

Laugarrena.– Finantziarioa.

Deialdi hau finantzatzeko 201.000 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan hartarako habilitatutako kredituaren barrukoak.

Bosgarrena.– Laguntzen izaera.

Agindu honen bidez araututako laguntzak honelakoak dira: Nekazaritzako Erakunde Profesionalek sortutako gastuak indemnitzatzen bideratutako funts ekonomikoen entrega ez itzulgarriak; hain justu ere ondoren zehaztu lan-talde eta kontsulta-organoetan izatearen eta parte hartzearen ondorioz:

- Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseilua eta Sektoreetako Batzordea.
- Landaberri-ren barruan sortutako lan-taldeak.

Seigarrena.– Betekizunak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte nekazaritzako erakunde profesionalak, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan edukitzea.
- b) Legez eratuak izatea eta Elkarteen Erregistroan inskribaturik izatea.
- c) Agindu honetako bosgarren puntuan aipatzen diren kontsulta-organo eta lan-taldeetarikoa batean parte hartzea.

Zazpigarrena.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen bidez emango dira diru-laguntzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrerako hiru hilabeteko epean.

2.– Hiru hilabeteok igaro eta ebazpen berariazkorik ez bada eman eta ez bada jakinarazi, interesdunek euren eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 44. artikuluan xedatutakoarekin bat.

3.– Ematen den ebazpenaren aurka, edo epea igaro eta ebazpen berariazkorik eman ez bada, interesdunek gorako errekurtsioa jar diezaiokete Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, aipatu legeko 114. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik etorriaz.

Zortzigarrena.– Laguntza kalkulatzeko prozedura.

Onuradun gertatzen den erakunde profesional bakoitzak jasoko duen zenbateko osoa, honako prozedura honen arabera zehaztuko da:

a) Lehenengo eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorretan xede horretarako erreserbatuta dagoen zenbatekoa Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoen artean banatuko da, parte berdinetan, eta ateratzen den zenbatekoa izango da lurralde historiko bakoitzean diharduten erakunde profesional guztiek batera jasoko duten gehieneko zenbatekoa.

b) Lurralde Historiko bakoitzari egotzitako zenbatekoa honelaxe banatuko da:

– Heren bat uniformeki banatuko da, delako lurralde historikoan diharduten erakunde profesionalen artean.

– Beste heren bat proportzionalki banatuko da erakunde profesionalen artean; hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezia izena emanda dauden afiliatu-kopuruen arabera, hirugarren puntuko 2.d) idatzi-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

– Gainerako herena ere proportzionalki banatuko da, Administrazioaren hizketakide modura egindako lanen arabera, zehazki, Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Kontseiluan, Sektorreerako Batzordean eta Landaberri-ren barruan sortzen diren lan-taldeen parte hartzea dela-eta. Bertaratzea eta parte-hartze hori, bileretako aktaren kopiaren bidez egiaztatutako da, eta erakunde bakoitzeko idazkariak kautotuko du agiri hori.

Bederatzigarrena.– Ordainketa.

Emandako diru-laguntza ordainketa bakarraren bidez gauzatu da, dagokion ebazpena emandakoan eta behin ondoko justifikazio-agiriak bidali ostean:

a) Laguntza-eskabidean finkatutako jarduerak burutu izana egiaztatzeke agiria, eta, halaber, jarduera horietan egindako gastuei dagokienez.

b) Beste administrazio edo erakunde publiko batzuek, edo izaera pribatuko pertsonak –fisikoek zein juridikoek– xede bererako emandako laguntzen ziurtagiria.

Hamargarrena.– Bateragarritasuna.

Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak erakunde onuradunei eman ahal dizkien beste edozeinekin, baldin eta helburu hau badute: agindu honetako bosgarren puntuan aipatutako foroetara joateko eta horietan parte hartzeke lanak finantzatzea.

Hamaikagarrena.– Betebeharrak.

Onuradunak bere gain hartuko ditu, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak, eta, bereziki, behartuta egongo da xedapen honen kontura jasotako laguntzei buruz Ekonomi Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak –euren eginkizunak betetzeko– eska ditzaketan argibide guztiak ematera.

Hamabigarrena.– Ez-betetzea.

Agindu honetan ezarritako baldintza guztiak bete behar ditu onuradunak. Hala egiten ez badu edo gezurrezko daturik aurkezten badu, diru-laguntza galduko du, eta jasotako zenbatekoa eta aplikatzekoak diren legezko interesak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean ezarri bezala, eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitako prozeduraren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkez diezaizokete Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 22a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.